

2697

**3/1996 LEGEA, maiatzaren 10eko, haragi freskoa eta oilategiko hegaztien haragia ikustatzeko eta haragi horren osasun kontrolaz arduratzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko Tasena.**

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

**MAIATZAREN 10EKO 3/1996 LEGEA, HARAGI FRESKOA ETA OILATEGIKO HEGAZTIEN HARAGIA IKUSKATZEKO ETA HARAGI HORREN OSASUN KONTROLAZ ARDURATZEKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASENA.**

### ZIOEN ADIERAZPENA

Haragi freskoa ikuskatu eta haragi horren osasun-kontrolaz arduratzeko zerbitzuei zegozkien tasak Euskal Autonomi Elkarteko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 31ko 3/1990 Legearren II. idazpuruko IX. atalburuko 3.12.03 sekzioan esaten zenaz bat eskuratu izan dira, orain arte, Euskadin. Lege hori Estatuko merkaturako haragi freskoak ikuskatu eta horien osasun-kontrolaz arduratzeagatiko tasa homologatzen duten oinarriekin bat dator, hain zuzen ere Politika Fiskal eta Finantzieroaren Kontseiluak 1990. urtean onartu zituen oinarriekin. Oinarri horien helburua nondik norako orokorrak finkatzea zen, hau da, autonomi elkartea guztiei Europako Elkartetako Kontseiluaren 88/409/EEE Arteztarauan jasotako hatsapen edo printzipio orokoren berri eman nahi zien. Arteztara horretan Estatuko merkaturako izango diren haragiek bete beharreko osasun-arauak daude ezarrita. Bestalde, 85/73/EEE Arteztarauan eta arteztara horren araberako 88/408/EEE erreferentziadun Kontseiluaren Erabakian, zenbateko tasak eskura daitezkeen esaten da, hain zuzen ere haragi horiek ikuskatu eta osasun-kontrolaz arduratzeagatik.

Europako Elkarteo Kontseiluaren 1993ko abenduaren 22ko 93/118/EE Arteztaraua abereetatik ateratako produktuak ikuskatu eta kontrolatzeagatik sortutako gastuak fmantzatzeari buruzkoa da, eta dioenez, estatu elkartekide guztiak haragi freskoa eta oilategietako hegaztien haragia ikuskatu eta haragi horren osasun-kontrolaz arduratzeko zerbitzuei dagozkien tasak ezarri beharra daukate, baina arteztara horretan erabakitzent diren mailen barruan. Arteztara horrek 85/73/EEE Arteztaraua aldatu zuen, eta zein produktu hartzen dituen kontuan 89/662/EEE

2697

**LEY 3/1996, de 10 de mayo, de Tasas por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral.**

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

**LEY 3/1996, DE 10 DE MAYO, DE TASAS POR LOS SERVICIOS DE INSPECCIÓN Y CONTROL SANITARIO DE CARNES FRESCAS Y CARNES DE AVES DE CORRAL.**

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Hasta el momento, las tasas por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas se han venido aplicando en Euskadi de conformidad con lo dispuesto en la Sección 3.12.03 del Capítulo IX del Título II de la Ley 3/1990, de 31 de mayo, de Tasas y precios públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en consonancia a las bases para la homologación de la tasa de inspección y control sanitario oficial de carnes frescas destinadas al mercado nacional, aprobadas en el año 1990 por el Consejo de Política Fiscal y Financiera. Éstas tenían por finalidad proporcionar unas pautas generales para trasladar a la normativa propia de cada una de las Comunidades Autónomas los principios generales contenidos en la Directiva del Consejo de las Comunidades Europeas 88/409/CEE, por la que se establecen las normas sanitarias aplicables a las carnes reservadas al mercado nacional y los niveles de la tasa a percibir con arreglo a la Directiva 85/73/CEE por la inspección de dichas carnes, así como la Decisión del Consejo 88/408/CEE, referente a los niveles de la tasa que se deberá percibir por las inspecciones y controles sanitarios de carnes frescas, de conformidad con la Directiva 85/73/CEE.

La Directiva del Consejo de la Comunidad Europea 93/118/CE, de 22 de diciembre de 1993, por la que se modifica la Directiva 85/73/CEE del Consejo, relativa a la financiación de las inspecciones y controles veterinarios de los productos de origen animal contemplados en el Anexo A de la Directiva 89/662/CEE y en la Directiva 90/675/CEE, establece que todos los Estados miembros deberán fijar las tasas a percibir por la inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral en función de los niveles que establece la propia directiva.

Arteztarauaren A eraskinean eta 90/675/EEE Arteztarauan dago zehaztuta.

Europako Elkartea osorako arau horiek oinarrizko hiru helburu dituzte:

- a) Produktuen kalitatea dela eta, kontsumitzaleen osasuna modu bateratuan babesten dela bermatzea.
- b) Produktuen joan-etorri askea mantentzea elkartearren barman, baina kalitatea modu beretsuan bermatuta. Bermatze horrek estatu elkartekide bakoitzaren barman merkaturatutako produktuei nahiz beste estatu batzuetatik datozenei eragingo die.
- c) Produktuen arteko lehian distorsioak izatea galaraztea, produktu horien merkatua antolatzeko modua bateratua delako.

Lege honen helburua gure araudia aurreko arteztarau horretan esaten denera egokitzea da, euskal lurraldetako arteztarauak eskatzen duena betetzeko. Izan ere, haragi freskoak ikuskatzeari dagokion tasa autonomi elkarteen zergetako bat da, hala baitio Autonomi Elkartea Finantzatzeko Lege Organikoaren 7. atalaren 2. azpiatalak (irailaren 22ko 8/1980 Legea). Autonomi Estatutuaren 18. atalean daga aurrikusita zerbitzuak eskualdatzea, eta horren ondorioa da 8/1980 Legea. Gainera, tasei buruzko lege hau autonomi elkarrekin onartutako irizpideen arabera idatzi da.

Legeak kontuan izan ditu 93/118/EE Arteztarauak tasak murriztea dela eta esaten dituenak, hau da, estatu elkartekide bakoitzaren barruan gehienez ere %55era arteko murrizketak izan daitezkeela tasetan, aipatu dugun arteztarauaren eraskinaren I. atalburuan aipatzen diren tasetan, alegia.

Era berean, kontuan hartu da arteztarauan zehazten den erreferentziaren guztirako muga, alegia, ikuskapen-lanen benetako kostua guztira zein den. Arteztarau hori bat dator Autonomi Elkartea Finantzakeko Lege Organikoaren 7. ataleko 3 zenbakian erabakitakoarekin eta Euskal Autonomi Ekarteko Administrazio Orokorreko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen 17. ataleko 1. azpiatalean (maiatzaren 31ko 3/1990 Legea) esaten denarekin.

Aurretik esandako guztiagatik, eta Euskal Autonomi Elkartea tasak ezartzeko duen ahalmenean oinarrituta (Konstituzioaren 133 eta 157. atalak,

Esta normativa comunitaria persigue tres objetivos fundamentales:

- a) Garantizar una protección sanitaria uniforme del consumidor en cuanto a la calidad del producto.
- b) Mantener la libre circulación de los productos dentro de la Comunidad, en base a unas garantías de calidad similares tanto para el consumo nacional de los productos comercializados en el mercado interior de cada Estado miembro como para los procedentes de terceros Estados.
- c) Evitar distorsiones en la competencia de los distintos productos sometidos a las reglas de organización común de los mercados.

La finalidad de esta ley es acomodar nuestra normativa al contenido de la mencionada directiva en territorio vasco, teniendo en cuenta que, conforme a lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 7º de la ley orgánica de Financiación de las Comunidades Autónomas, 8/1980, de 22 de septiembre, las tasas sanitarias que gravan la inspección de carnes frescas tienen la consideración de tributos propios de la Comunidad Autónoma, como consecuencia de las transferencias de servicios realizadas en virtud de lo previsto en el artículo 18 del Estatuto de Autonomía. Esta norma se ha realizado además con criterios homogéneos aprobados por todas las Comunidades Autónomas.

La ley se ha redactado teniendo en cuenta las consideraciones que efectúa la mencionada Directiva 93/118/CE respecto de las reducciones que pueden establecerse en la normativa propia de los distintos Estados miembros, sin que den lugar en ningún caso a disminuciones superiores al 55% de los niveles de las tasas que se fijan en el Capítulo I del Anexo de la Directiva 93/118/CE del Consejo.

Igualmente se tiene en cuenta el límite de referencia total especificado en la directiva, el total de los costes reales de la inyección, precepto que concuerda con lo dispuesto en el número 3 del artículo 7º de la citada ley orgánica de Financiación de las Comunidades Autónomas, así como en el apartado 1 del artículo 17 de la Ley 3/1990, de 31 de mayo, de Tasas y precios públicos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En virtud de quanto antecede y en base a la facultad de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el establecimiento de tasas, determinada en los artículos

Autonomi Elkarteak Finantzatzeko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa eta Autonomi Estatutuaren 42. atala), lege honen helburua haragi freskoa eta oilategiko hegaztien haragia ikuskatu eta haragi horren osasun-kontrolaz arduratzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasak ezartzea da. Gainera, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 31ko 3/1990 Legearen II. idazpuruko IX. atalburuko 3.12.03 sekzioko 133tik 137.era arteko ataletan araututakoa ordezkatzen du legeak. Sekzio hori “haragi freskoak ikuskatu eta horien osasun-kontrolaz arduratzeko zerbitzuen tasei” buruzkoa da.

## ATALBURU BAKARRA

**Haragi freskoak eta oilategiko hegaztien haragia ikuskatzeko eta haragi horren osasun-kontrolaz arduratzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa**

### 1. atala.- Zergaren helburua

Haragi freskoak eta oilategiko hegaztien haragia ikuskatu eta haragi horien osasun-kontrola egitea zergapetzen du tasak.

Kontrol hori horretarako gaitasuna duten teknikariek egingo dute, ondoren aipatzen diren uneetan:

- Abereak hiltzean.
- Kanalak zatitzean.
- Pertsonek kontsumitzeko haragi freskoak biltegietan jasotzen direnean.

### 2. atala.- Zergagaia

Tasa honen zergagaia Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasun publikoa zaintzeko burutzen dituen iharduerak izango dira, hain zuzen ere kontsumorako abereak eta horien haragi fieskoak ikuskatu eta osasun-kontrolaz arduratzeko. Lan horiek kasuan kasuko zerbitzuetako teknikariek egingo dituzte abereak hil, haragia manipulatu eta biltzeko tegi edo guneetan, beti ere Euskal Autonomi Elkartean.

Tasa hori eskuratzea dela eta, zergagaiak biltzen dituen ikuskapeneko eta osasun-kontroleko iharduerak honela daude sailkatuta:

- “Ante mortem” egindako ikuskapen eta osasun-kontrolak. Kontrol horiek behi-, zaldi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-aziendei, oilategietako hegaztiei, untxiei eta abeltegietan hazitako ehizako animaliei egindakoak izango dira, haragi freskotarako direnean.

133 y 157 de la Constitución, artículo 7 de la Ley Orgánica 8/1980, de 22 de septiembre, de Financiación de las Comunidades Autónomas, y artículo 42 del Estatuto de Autonomía, la presente ley tiene por objeto el establecimiento de la tasa por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral, y sustituye a la regulación contenida en los artículos 133 al 137 de la Sección 3.12.03, “Tasa por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas”, del Capítulo IX del Título II de la Ley 3/1990, de 31 de mayo, de Tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## CAPÍTULO ÚNICO

**Tasa por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral.**

### Artículo I.- Objeto del tributo

La tasa grava la inspección y control sanitario de cames frescas y carnes de aves de corral.

Dicho control e inspección será realizado por los técnicos facultativos en las siguientes fases de producción:

- Sacrificio de animales.
- Despiece de canales.
- Operaciones de almacenamiento de carnes frescas para consumo humano.

### Artículo 2.- Hecho imponible

Constituye el hecho imponible de esta tasa la prestación de las actividades realizadas por el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco para preservar la salud pública, mediante la práctica de inspecciones y controles sanitarios de animales y sus carnes frescas destinadas al consumo y efectuadas por los facultativos de los servicios correspondientes en los locales o establecimientos de depósito, sacrificio o manipulación sitos en el territorio vasco.

A efectos de la exacción del tributo, las actividades de inspección y control sanitario que se incluyen dentro del hecho imponible se catalogan de la siguiente forma:

- Inspecciones y controles sanitarios “ante mortem” para la obtención de carnes frescas de ganado bovino, solípedos/équidos, porcino, ovino y caprino, aves de corral, conejos y animales de caza de granja.

- Hildako abereei “post mortem” egindako ikuskapen eta osasun-kontrolak, haragi freskotarako direnean.
- Abereen eta haragi freskoen hondakinak erabiliz egindako azterketak, indarrean dagoen legeriak agintzen duen eran.
- Osasun-ikuskapenaren egiaztagiriak, beharrezkoa boda.
- Kanal, buru, mingain, bihotz, birika, gibel eta kontsumitzeko beste errai edo barruki batzuk kontrolatu eta zigilatzea eta haragia zatitzeko guneetan egindako zatiak markatzea.
- Pertsonek kontsumitzeko haragi freskoak biltegiratzea, hala erabakitzentzen denetik. Ez dira hemen sartuko azken kontsumizaileei saldu baino lehen saltokii txikietan gordetzen diren kopuru txikiak.
- Biltegiratutako haragien sarrera-irteeren eta horiek kontserbatzaileen kontrola eta ikuskapena.

### **3. atala.- Zergapekooa**

- 1.- Tasa hau ordaindu beharko duten zergapekoak zerbitzua eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira, hau da, abereren bat hiltzea, zatitza, biltegiratza edo aurreko atalean aipatutako zerbitzuren bat burutzea eskatzen duten pertsonak.
- 2.- Zergapekoaren ordezko gisa, honakook izango dute tasa ordaindu beharra:
  - “Ante mortem” eta “post mortem” egindako ikuskapen eta osasun-kontrolak, hondakinen azterketak eta pertsonek kontsumitzeko kanal, buru, mingain eta errai edo barrukiak zigilatu edo markatza direnean eginkizunak, hiltegien jabeak edo hiltegia ustiatzen duen enpresa, bai pertsona fisikoa bada bai pertsona juridikoa bada.
  - Kanalak zatitzeko lana kontrolatzeak eragindako tasa baldin bada:
    - a) Goian aipatutako pertsona berak izango dira zergapekoak, zatitzeko lan horiek hiltegian bertan egiten badira.

- Inspecciones y controles sanitarios “post mortem” de los animales sacrificados para la obtención de las mismas carnes frescas.
  - Investigación de residuos en los animales y las carnes frescas en la forma prevista por la normativa vigente.
  - Certificado de inspección sanitaria, cuando sea necesario.
  - El control y estampillado de los canales, cabezas, lenguas, corazones, pulmones e hígados y otras vísceras destinadas al consumo humano así como el marcado o marchamado de las piezas obtenidas en las salas de despiece.
  - Operaciones de almacenamiento de carnes frescas para el consumo humano, desde el momento en que así se establezca, excepto las relativas a pequeñas cantidades realizadas en locales destinados a la venta a los consumidores finales.
  - Control e inspección de entradas y salidas de las carnes almacenadas y de su conservación.
- Artículo 3.- Sujeto pasivo**
- 1.- Son sujetos pasivos de esta tasa, en calidad de contribuyentes, las personas físicas o jurídicas que soliciten la prestación del servicio o para quienes se realicen las operaciones de sacrificio, despiece o almacenamiento descritas en el artículo anterior.
  - 2.- Están obligados al pago de la tasa, en calidad de sustitutos del contribuyente:
    - En el caso de las tasas relativas a las inspecciones y controles sanitarios oficiales “ante mortem” y “post mortem” de los animales sacrificados, investigación de residuos y estampillado de canales y cabezas, lenguas y vísceras destinadas al consumo humano, los propietarios o empresas explotadoras de los mataderos o lugares de sacrificio, ya sean personas físicas o jurídicas.
    - En cuanto a las tasas relativas al control de las operaciones de despiece:
      - a) Las mismas personas determinadas en el párrafo anterior cuando las operaciones de despiece se realicen en el mismo matadero.

<p><b>b)</b> Gainontzeko kasuetan, beren kasa zatitzeko lanak egiteko erabiltzen diren tegien jabeak, pertsona fisiko edo juridikoak izanda ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Biltegi kontrola bada egiten dena, biltegi horien jabeak izango dira ordaindu behar dutenak, pertsona fisikoak edo juridikoak izanda ere, tasak finkatzen diren unetik hasita.</li> </ul> <p>3.- Dena den, zergapekoak izango dira, modu berean, banatugabeko jaraunspenak, ondasun-erkidegoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, batasun ekonomikoa edo bereiztuta ageri den ondarea osatzen duten gainontzeko erakundeak, ordaindu behar dutenakoak izan bidaitezke.</p> <p>4.- Ordaindu behar duenaren ordezkoek tasaren zenbatekoa fakturan gehituko dute, eta gero, autonomi elkartearren izenean egingo dute dirusarrera, araudiz ezarritako moduan.</p>	<p><b>b)</b> Las personas físicas o jurídicas propietarias de los establecimientos dedicados a la operación de despiece de forma independiente, en los demás casos.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Y, por lo que respecta a las tasas relativas a control de almacenamiento, desde el momento en que se fijen, las personas físicas o jurídicas propietarias de las citadas instalaciones de almacenamiento.</li> </ul> <p>3.- En todo caso, tendrán igualmente la condición de sujetos pasivos las herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades que, carentes de personalidad jurídica, constituyan una unidad económica o un patrimonio separado susceptible de imposición.</p> <p>4.- Los sustitutos del contribuyente deberán cargar el importe de la tasa en factura, procediendo posteriormente a su ingreso a favor de la Comunidad Autónoma, en la forma que reglamentariamente se establezca.</p>
<p><b>4. atala.- Tasa ordaindu bebarearen erantzuleak</b></p> <p>1.- Tasa ordaindu beharra eragin duen ihardueran diharduten enpresetako administratzaleak eta sindikoak, eta baita kiebren, lehiaketen edo era guztietako erakundeen kontuhartzaile edo kitatzaleak izango dira erantzule subsidiarioak.</p> <p>2.- Azken kontsumitzailearentzako haragia saltzen den denda edo harategiaren jabea ere erantzule subsidiarioa izango da, nahiz eta produktua jateko gertatuta egon, baldin eta haragi hori nondik datorren ezagutzen ez bada.</p>	
<p><b>5. atala.- Tasaren sortzapena</b></p> <p>1.- Haragi freskoak eta oilategiko hegaztien haragiak ikusatzeko eta horien osasun-kontrolaz arduratzeko lanak hasten direnean hasiko da tasa sortzapena sortzen, hain zuzen ere lan horiek egingo diren tegi edo instalazioetan. Dena den, aldez aurretik ordaintzea eskatu ahal izango da, zerbitzu horiek burutzea zergapekoak berak eskatu baldin badu.</p> <p>2.- Interesatuak hala eskatuta, tegi berean aberea hil, zatitu eta biltegiratu egiten bada edo hiru langintza horietako bi behintzat leku berean burutzen badira, ordaindu beharreko tasa lan bakoitzari dagokionaren batuketa izango da, eta prozesuaren hasieran ordainduko da, kobratu beharra eragingo duen lan hori noiz egiten den</p>	
<p><b>Artículo 4.- Responsables del pago de la tasa</b></p> <p>1.- Serán responsables subsidiarios los administradores de las sociedades y los síndicos, interventores o liquidadores de quiebras, concursos, sociedades y entidades en general que se dediquen a las actividades cuya inspección y control genera el devengo de la tasa.</p> <p>2.- Igualmente serán responsables subsidiarios los titulares del comercio donde se expidan las carnes al consumidor final, aun cuando sea en forma de producto cocinado y condimentado, siempre que no se conozca su origen o procedencia.</p>	
<p><b>Artículo 5.- Devengo de la tasa</b></p> <p>1.- La tasa que corresponde satisfacer se devengará en el momento en que se inicien las actividades de inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral, en los establecimientos o instalaciones en que se desarrollen las mismas, sin perjuicio de que se exija su previo pago cuando los servicios se inicien a solicitud del sujeto pasivo.</p> <p>2.- En caso de que en un mismo establecimiento y a solicitud del interesado se realicen en forma sucesiva las tres operaciones de sacrificio, despiece y almacenamiento, o dos de ellas en fases igualmente sucesivas, el total de la tasa a percibir se hará efectivo en forma acumulada al comienzo del proceso, con independencia del</p>	

kontuan izan gabe. Dena den, 8. atalean esaten dena ere kontuan eduki beharko da.

## 6. atala. Zergagaia non burutzen den

Zergagaia Euskal Autonomi Elkartean burututakoa izango da bertan baldin badago abereak hil, kanalak zatitu edo haragiak biltegiratzeko tegia, eta baita hondakinen azterketak egiteko zentrua ere Euskal Autonomi Elkartean baldin badago, 9. atalean aipatzen den egoerarako.

## 7. atala. Zerga-kuota

1.- Zerga-kuota ondoren aipati diren lanengatik eskatuko zaio zergapekoari:

- Abereak hiltzea.
- Kanalak zatitzae.
- Biltegiratza kontrolatzae.

Dena den, tegi berean hiru lan horiek batera egiten baldin badira, guztira eskuratu beharreko tasa hiru lan horien kuoten batuketa izango da, ondorengo atalean esaten denez.

2.- Hiltegietako zergapekoei hildako abereengatik zenbateko kuotak eska dakizkiekeen erabakitzeko, hildako abere-kopurua hartuko da kontuan.

3.- “Ante mortem” eta “post mortem” egindako ikuskapenek eta osasun-kontrolek, kanalak, buruak, mingainak, birikak, gibelak **e.a.** zigilatu eta markatzeak eta hondakinen azterketa egiteak dakartzaten iharduerengatik eskuratu beharreko zerga-kuotak ondorengo taulan datozenak izango dira. Kopuru horiek hildako abere bakoitzeko ordaindu beharrekoak dira, beti ere beharrezko baimena duten tegi edo instalazioetan.

Abere-mota. Hildako abere bakoitzeko kuota (pezetak)

### C1.1.BEHL-AZIENDA

- C1.1.1.- Kanalean 218 kilo baino gehiagokoa: 300.  
 C1.1.2.- Kanalean 218 kilo baino gutxiagoko txahala: 167.

### C1.2.-ZALDI-AZIENDA

- C1.2.1.- Zaldien familiakoak: 293.

### C1.3.-TXERRI-AZIENDA

- C1.3.1.- Kanalean 12 kilo baino gehiago duen merkaturakoa: 86.

momento del devengo de las cuotas correspondientes, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 8 siguiente.

## Artículo 6.- Lugar de realización del hecho imponible

Se entenderá realizado el hecho imponible en territorio vasco cuando en el mismo radique el establecimiento en que se sacrificuen los animales, se despieceen las canales, se almacenen las carnes o se realice la investigación de residuos en el supuesto contemplado en el artículo 9 siguiente.

## Artículo 7.- Cuota tributaria

1.- La cuota tributaria se exigirá al contribuyente por cada una de las operaciones relativas:

- Sacrificio de animales.
- Operaciones de despiece.
- Control de almacenamiento.

No obstante, cuando concurren en un mismo establecimiento las tres operaciones, el importe total de la tasa a percibir comprenderá el de las cuotas de las tres fases acumuladas en la forma prevista en el artículo siguiente.

2.- En las operaciones de sacrificio realizadas en mataderos las cuotas exigibles al sujeto pasivo se determinarán en función del número de animales sacrificados.

3.- Las cuotas tributarias relativas a las actividades conjuntas de inspección y control sanitario “ante mortem” y “post mortem”, estampillado de las canales, cabezas, lenguas, pulmones e hígados, etc. e investigación de residuos, exigibles con ocasión del sacrificio de animales, se cifran, para cada animal sacrificado en los establecimientos o instalaciones debidamente autorizados, en las cantidades que se recogen en el cuadro adjunto:

Clase de ganado. Cuota por animal sacrificado (pesetas)

### C1.1.-BOVINO

- C1.1.1.- De bovino mayor con más de 218 kg. de peso por canal: 300.  
 C1.1.2.- De terneros con menos de 218 kg. de peso por canal: 167.

### C1.2.-SOLÍPEDOS/ÉQUIDOS

- C1.2.1.- Ganado caballar: 293.

### C1.3.-PORCINO

- C1.3.1.- Comercial de más de 12 kg. de peso por canal: 86.

C1.3.2.- Kanalean 12 kilo baino gutxiago duen esne-txeria: 11.

**C1.4.- ARDI- ETA AHUNTZ-AZIENDA**

C1.4.1.- Kanalean 18 kilo baino gehiago duena: 33.

C1.4.2.- Kanalean 12 eta 18 kilo artean duena: 23.

C1.4.3.- Kanalean 12 kilo baino gutxiago duena: 11.

**C1.5.- OILATEGIKO HEGAZTIAK**

C1.5.1.- Kanalean 5 kilo baino gehiago duen hegaztia: 2,60.

C1.5.2.- Kanalean 2,5 kilo baino gehiago duen gizentzeko hegazti gaztea: 1,30.

C1.5.3.- Kanalean 2,5 kilo baino gutxiago duen gizentzeko hegazti gaztea: 0,67.

C1.5.4.- Ordeztekoi oiloa: 0,67.

**C1.6.- UNTXIAK**

C1.6.1.- Untxiak: 0,67.

**C1.7.- ABELTEGIAN HAZITAKO EHIZA**

C1.7.1.- Kanalean 218 kilo baino gehiago duen ugaztuna: 300.

C1.7.2.- Kanalean 218 kilo baino gutxiago duen ugaztuna: 167.

C1.7.3.- Kanalean 5 kilo baino gehiago duen hegaztia: 2,60.

C1.7.4.- Kanalean 2,5 kilo baino gehiago duen hegaztia: 1,30.

C1.7.5.- Kanalean 2,5 kilo baino gutxiago duen hegaztia: 0,40.

4.- Gainontzeko lanetarako, zenbat tona haragi zatitu behar den eta biltegian zenbat kontrolatu behar den hartuko da kontuan kuota finkatzeko. Bai biltegian gordetzea dela bai haragia zatitzea dela eta, pisua zenbatekoa den jakiteko, haragia zatitu aurretik hartuko da kontuan, hezur eta guzti.

5.- Haragia zatitzeko geletan egiten den ikuskapen eta osasun-kontrolagatik, eta haragi-zatiei etiketak eta markak jartzeagatik, 200 peseta ordaindu beharko da tona bakoitzeko.

6.- Biltegiratzeak ikuskatu eta horien osasun-kontrolaz arduratzeagatiko kuota ere 200 pezetakoia izango da tona bakoitzeko. Hori, dena den, 93/118/EE Arteztarauaren eraskinean aipatzen den egoera indarrean jartzen denetik aurrera izango da.

C1.3.2.- Lechones de menos de 12 kg. de peso por canal: 11.

**C1.4.- OVINO Y CAPRINO**

C1.4.1.- Con más de 18 kg. de peso por canal: 33.

C1.4.2.- Entre 12 y 18 kg. de peso por canal: 23.

C1.4.3.- De menos de 12 kg. de peso por canal: 11.

**C1.5.- AVES DE CORRAL**

C1.5.1.- Aves de corral con más de 5 kg. de peso por canal: 2,60.

C1.5.2.- Aves de corral jóvenes de engorde con más de 2,5 kg. de peso por canal: 1,30.

C1.5.3.- Aves de corral jóvenes de engorde con menos de 2,5 kg. de peso por canal: 0,67.

C1.5.4.- Gallinas de reposición: 0,67.

**C1.6.- CONEJOS**

C1.6.1.- Conejos: 0,67.

**C1.7.- CAZA DE GRANJA**

C1.7.1.- Mamíferos con más de 218 kg. de peso por canal: 300.

C1.7.2.- Mamíferos con menos de 218 kg. de peso por canal: 167.

C1.7.3.- Aves con más de 5 kg. de peso por canal: 2,60.

C1.7.4.- Aves con más de 2,5 kg. de peso por canal: 1,30.

C1.7.5.- Aves con menos de 2,5 kg. por canal: 0,40.

4.- Para el resto de las operaciones la cuota se determinará en función del número de toneladas sometidas a la operación de despiece y a las de control de almacenamiento. A estos últimos efectos y para las operaciones de despiece se tomará como referencia el peso real de la carne antes de despiezar, incluidos los huesos.

5.- La cuota relativa a las inspecciones y controles sanitarios en salas de despiece, incluido el etiquetado y marcado de piezas obtenidas de las canales, se fija en 200 pesetas por tonelada métrica.

6.- La cuota relativa al control e inspección de las operaciones de almacenamiento, desde el momento en que se establezcan por haberse producido el desarrollo previsto en el Anexo de la Directiva 93/118/CE, se cifra igualmente en 200 pesetas por tonelada métrica.

7.- Era berean, tasa hau dela eta kuota bat eskutatuko da hiltegietan egin beharreko ikuskapenek eta osasun-kontrolek eragindako administrazio-gastuei aurre egiteko. Zenbat ordaindu behar den jakiteko, abere bakoitzeko kopurua jarriko da, ondorengo taulan adierazten dena, hain justu. Kopuru horiek kanalen bataz besteko pisua kontuan hartuta aukeratu dira, beti ere abere-motaren arabera.

Aberea. Administrazio-gastuen kuota, hildako abere bakoitzeko (pezetak)

#### C2.1.- BEHI-AZIENDA

- C2.1.1.- Kanalean 218 kilo baino gehiagokoak: 12,40.
- C2.1.2.- Kanalean 218 kilo baino gutxiagoko txahala: 8,50.

#### C2.2.- ZALDI-AZIENDA

- C2.2.1.- Zaldien familiakoak: 7,00.

#### C2.3.- TXERRI-AZIENDA

- C2.3.1.- Kanalean 12 kilo baino gehiago duen merkaturakoa: 3,60.
